

Galarretako rotonda gaur bukatuko dute

■ Bi karrilak zabaldu eta sarrera-irteerak egokitu dizkiote ■ Azken ukituak, urtarrilean.



Itxura hau zeukan Galarretako rotondak, atzo arratsaldean. Artean, bazen nahikoa lan egiteko!

GAU eta egun ari dira lanean Galarretako rotonda haunditze-ko. Egunero sortzen diren iladak ikusita hasi zituen lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak; helburua: Galarretan sortzen zen *tapoia* arintzea. Lurra altxa

behar zutela aprobetxatuta, inguruko etxeetarako tuberiak pasatu ditu udalak.

TRAFIKOA NORMAL
Trafikoarentzat "guztiz" gaur irekiko dutela esan digute

Foru Aldunditik. Obra, beraz, ia bukatuta geratuko da. Urtarriletik aurrera txukuntze lanak egingo dituzte: bideertzeko azken erremateak, jardinak... baina trafikoari trabarik egin gabe. □

Presoen aldeko 'manikalejira', bihar

■ Errepresioak hildakoak omenduko dituzte ■ 20:00etan, plazan.



Atzo ireki zuten Gabonetarako denda, Andrekalean.

AMNISTIAREN aldeko batzordeek antolatuta, olentzero eta guztiko manikalejira egingo da, bihar. Amaitzean kilo angula zozketatuko da.

DENDA ZABALIK
Amnistiaren aldeko denda zabalik da dagoeneko; Andrekalean, Ekos taberna parean dago. Arropa, liburu, bideo...denetik dago salgai. Ateratzen den dirua presontzako izango da. □



Sandiusterriko edadetuak Santo Tomas, egunean.

Gabonetako jai programa atera dute, Sandiusterrin

■ Gaur Igel txapelketa dute 17:30etan.

ERREGA bezpera bitartean zazpi ekitaldi behintzat izango dira Sandiusterrin. Santo Tomasetan txistorrarekin ekin zioten eta gaur Igel txapelketa dute. Bihar, igandea, Gabon

kantak. Inuxente egunean, Puntu txapelketa. Abenduaren 30ean, musika. 31ean, Bingo Berezia; eta bukatzeko, urtarrilaren 5ean, Bote eta Toka txapelketa. □

Lapurretak Hernanin

■ Kanpotik etorritako lapur espezializatuak dabilta ■ Ate-ak itxi eta giltzatzea gomendatzen du Ertzaintzak

ASTE hauetan lapurretak izan dira Hernani, Astigarraga eta Lasarteko etxe batzuetan: ate-ak giltza eman gabean zeuden. Ateak zabalitzen ondo ikasitako lapur hauek plastikozko tarjetarekin irekitzen dituzte: sarraila parean sartu eta *ttak* atea zabalik, batere fortzatu gabe. Berdin du aterik onena bada ere, giltzatu gabe badago.

HIRI HAUNDIETATIK
Herrizaingo Sailak dioenez, lapur espezializatu hauek hiri haundietakoak dira, eta aldian behin, herrietara etortzen dira: jendea beste patxada batean bizi dela jakinda. Etxeetan egunez sartzen dira, jendea kalean dela aprotxatuta. Ezer duenak: ☎ 112 edo 943-332500. □

Kiroldegia jai egunetan itxita egongo da

■ Abenduan: 24, 25 eta 31ean; urtarrilean: 1 eta 6an.

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Marisol Yabemen argazki erakusketa.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxa 943 55 21 96 HERNANI



serigrafia



diseinu grafiko



etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda

andrekale35
kardaberaz, 35. Tel.: 943 33 60 05

yone
boutique

Eguberritan...

PREZIO BEREZIAK

NAGUSIA 63 - HERNANI



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



PROCOLOR ZENTRUA

Landaribar, s.l.

Pintatzeko chihoak
Industri eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako papereak

Kardaberaz 45 - Tel 943 552131 - HERNANI

'Marigorri': urtebete ume zaintzen

■ Ludoteka goizeko 08:00etatik gaueko 20:00etara dago zabalik ■ Gehienez 4 ordurako utzi litezke umeak ■ Latxunbe Berri 2an daude, Kiroldegi atzean.



Ume koadrila, atzo, argazkirako posatzen.

ATZO zen urtebete Hernanin ludoteka ireki zutena. Geroztik 105 ume pasa omen dira: batzuek egunero, besteak astean behin, beste batzuk behin bakarrik... gurasoen beharretara, beti ere. Kondizio bakarra umeak urtebete behintzat izatea.

EGUN OSOAN

Gurasoek umea zaindu ezin duten umeak betetzen ditu ludotekak. Gosaria, bazkaria edo merienda norberak eramanez gero, jaten ere bertan ematen diete; eta umeak ikastolara eramanez edo handik hartu ere bai. Larunbatean, berriz, 09:00etatik 13:00era dago zabalik. Zerbitzua ikusi nahi duenak Marigorritik pasa besterik ez du. Inongo konpromezurik gabe informatuko omen dute. □

10 kantu talde eta eliza gainezka Gabonetako kontzertuan

■ Talde bakoitzak bi kantatu zituen ■ Kantuz Abesbatzak antolatu zuen



Abesbatza guztiak Gau erdian abestia elkarrekin kantatzen, elizan ostegunea.


VIIIgarren Eguberri kanten topaketa izan zen ostegunean herriko San Joan parrokiaren. Aurten inoiz baino talde gehiago izan da: Parrokiko Abesbatza, Langileko DBH-

ko ikasleak eta Langile Laubidieta, Inmaculako ikasleak, Musika Eskolakoak, Kantuz Abesbatza, Urumeako ikasleak, Elizatxoko ikasleak, Ereñotzuko Ozenki

Abesbatza eta Doinu Zale Musika Eskolakoak.

Ordu eta erdiko kontzertua izan zen eta bukaeran abesbatza guztiak Gau erdian abestia kantatu zuten. □

HITZ BITAN



Landaribar anaiak, saria eskuetan dutela.

✓ GIPUZKOAKO ESKAPARATE SARIKETA

'Andre kale 35' entzat lehen saria. Merkataritza Garbarak antolatuta, 300 denda inguru izan da eskaparate lehiaketan: hernaniarra da lehen saria jaso zutenetako bat. Landaribar anaiak diotenez, orijinaltasunean dago sekretua: "Eskaparatean dagoenik ez duzu saltzen, baina, jendea fijatu egiten da".

✓ 'BERTSO LATA'

'Iñatzu-Hernani' desafioa gaur Ur Mian. Auzoa herriaren kontra arituko dira gaur bertsoetan. Ereñotzuko taldean Aritz Zerain, Ibon Miner eta Iñaki Zelaia arituko dira. Hernanikoan, Unai Agirrek, Jose Luis Urdangarinek eta Iker Osak kantatuko dute. Afaria: bederatzietan.

✓ TXORIMALO LEHIAKETA

Unai Cabrera txapeldun. Bi txorimalo egin zituzten herenegun, Berriak eta Doberak antolatutako lehiaketan. Txapelduak 25.000 Pta jaso ditu. Lide eta Garazi Redondok 15.000 Pta.

✓ MUSIKA

Egan taldea Oialumen, gaur. Gauerdian hasita, Oialume dantzalekuan Eganek joko du gaur. Bihar, igandea, ez dago dantzaldirik. 25an, berriz, SEN eta Trakets, 19:30etan hasita.

Txistu kontzertua Milagrosan. Gaur arratsaldeko zazpitan, Hernaniko Txistulari Bandak kontzertua emango du. Patxi Apezetxea zuzendari dutela, 9 pieza joko dituzte.

✓ POLITIKA

Haika gazte erakundeak gaur eztabaida bilera du. Amañur prozesuaren barruan izango da. Gaztegunean, 16:00etan.

✓ FUTBOLA

Hernani -Alaves, gaur Zubipen. 17:00etan hasita, zuriberdeak mendeko azken garaipena lortzeko aukera-aukeran dira gasteiztarren aurka. Irabazita, urtea txukun bukatuko dute.

✓ BOLEIBOLA

UPV-Hernani, Andoingo boleibol torneoan. Euskal Herriko lau talde indartsuenetakoek torneo jokatu dute gaur. Hernaniarrek UPV-Bizkaiaren (Bizkaiako ekipo fuertena) kontra jokatu dute lehen partidua. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
 ▶ DYA: 943 464622
 ▶ Autobusak: 943 556662
 ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gomez Justel Nagusia, 15 ☎ 943 554892
 ▶ Gauz: Acha-Orbea Lasarte. Hipodromo etorbidea, 6 ☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

▶ Autoa salgai. Renault Express, diesela, SS-AP matrikula. ☎ 943-33 05 88
 ▶ Hernaniko emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. Goiz eta arratsalde. Gizarte aseguratzairekin. ☎ 669 84 17 31

Telemar
ITXASTELE S.L.
 Telyco denda
 Elkano 13, HERNANI
 ☎ 943 33 26 00

*Telefonica*ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via Digital",...

Eguberritako eskaintza:
 'Telefonica Famitel' 14.900 Pta

JAIONE
 Kongelatuak

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ELKANO KALEA, 1
 Tel.: 943 55 07 87
 20120 HERNANI

OIALUME BILTOKIA.

EUSKAL GIROA
 Gaur EGAN

00:00etatik goizalderarte:

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

URUMEA BURDINDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

Nagusia 42 ☎ 943 551327 HERNANI

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI
 ZATOK TXIMELETARA ZURE OPARIK AUKERATZERA